

BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIAREN KARATULA

Kontratu mota: ZERBITZU-KONTRATUA

Prozedura: NEGOZIATUA PUBLIZITATEAREKIN

EZAUGARRIEN KOADROA	
KONTRATUAREN XEDEA	ESPEDIENTE ZK.
DEBAGOIENA MANKOMUNITATEKO HONDAKINAK GARRAIATZEKO ETA ARRASATEKO AKEI TRANSFERENTZIA ESTAZIOAREN KUDEAKETA BURUTZEKO ZERBITZUA	2014C

LIZITAZIOAREN AURREKONTUA (eskaintzek ezin dituzte adierazitako zenbatekoak gainditu)	
ZIFRATAN	LETRATAN
LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA 204.000€ (BEZ GABE)	BERREHUN TA LAU MILA EURO

ESKAINZAK AURKEZTEKO EPEA
Eskaintzak aurkezteko epemuga 2014KO UZTAILAREN 4a izango da. Adierazitako egunean, hamahiru orduak (13:00) baino lehen aurkeztuko dira.

KONTRATUAREN EPEAK	ZIGORRAK
6 HILABETE. Kontratua gehienez beste 6 HILABETEZ luzatzeko aukera egongo da. (ikus Baldintza-agiriko 4. klausula)	Baldintza-agiriko V. Kapituluari aurreikusitakoak

PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULA
Kontratua kontratistaren gain eta kontura gauzatuko da, eta ez da prezioen berrikuspenik egingo

ORDAINTZEKO MODUA
Preziora hilerorik ordainduko da, garraiatutako tona kopuruaren arabera. Hilabete bakoitzaren amaieran, eta hurrengo hilabetearen lehenengo 7 egun baliodunen barruan, esleipendunak aurreko hilabetearen garraiatutako tonen dagokien faktura, eta zehaztutako gainontzeko dokumentazioa, zerbitzuari dagokiona, GHK eskatutako protokoloa betetzen duena, igorriko du. Kontuan hartu behar diren tonak hondakindegian sartzean

baskulako tiketaren bidez justifikatutakoak izango dira; horiek fakturari erantsi beharko dizkio esleipendunak.

Ordainketa transferentzia bidez egingo da, GHKk igorritako fakturarekin ados dagoela adierazi eta 60 egunera.

(ikus baldintza-agiriaren 6. klausula)

BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.-ren alde eratuko da, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUAREN % 2an (BEZ GABE)
((Baldintza-agiriaren [17. klausula](#))

BEHIN BETIKO BERMEA

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.-ren alde eratuko da, ESLEIPENAREN ZENBATEKOAREN % 5ean (BEZ GABE)
((Baldintza-agiriaren [22. klausula](#))

PUBLIZITATEA

Lizitazio hau eta kontratuaren esleipena GHKko kontratatzailearen profilean argitaratuko dira (www.ghkinfo.com)

ALDAERAK

EZ DA ALDAERARIK ONARTZEN

KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

1. Negozioaren bolumen osoaren adierazpena eta, hala badagokio, kontratuaren xedeari dagozkion jardueren esparruko negozioen bolumenari buruzkoa, gehienez eskura dauden azken hiru (3) ekitaldietakoak. Azken hiru (3) urteetan negozio bolumenaren batez bestekoa gutxienez lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren adinakoa izan dela kreditatu beharko da

Urteko kontuek emaitza positiboak erakutsi beharko dituzte gutxienez aipatu ekitaldietako bitan.

2. BERREHUN MILA EUROKO (200.000 €) Erantzukizun Zibileko aseguru bat dagoela frogatzen duen agiria. BTAko 7.2.1. klausula.

3. Enpresa esleipendunak Ingurugiroarekiko Erantzukizun aseguru bat kontraturik duela ziurtatu beharko du, eta aseguraturako mugak ezingo du izan 200.000€ (berrehun mila euro) baino gutxiagokoa istripu bakoitzeko ezta 200.000€ (berrehun euro) baina gutxiagokoa urte bakoitzeko. Ingurugiroarekiko Erantzukizun aseguru honek kontratatutako zerbitzuaren alderdi guztiak, Plegu honetan jasotakoak, bere gain hartuko ditu. Horrela, esleipendunak zerbitzua egikaritzean Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa S.A.U.ri edo hirugarrenei sor diezaiekeen kalteen erantzukizun osoa bere gain hartuko du.

Justifikatutako arrazoren batengatik, lizitatuzailea edo talde bat osatzen duten lizitatuzaileetako bat ez badago aipatu erreferentziak aurkezteko moduan, kontratazio-organoak bere kaudimen ekonomikoa eta

finantzarioa kreditatzeko baimena eman ahalko dio, egoki deritzon beste edozein dokumenturen bidez.

KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

1. Azken hiru urteetako zerbitzu nagusien eta kaudimen tekniko edo profesionalaren zerrenda, horien zenbatekoak, datak eta hartzailea, publiko edo pribatua, jasotzen dituen. Egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak igorritako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez kreditatuko dira, hartzailea sektore publikoko entitate bat denean; hartzailea subjektu pribatu bat denean, honek igorritako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiri hori ezean, enpresariaren adierazpen baten bidez; kasua balitz, ziurtagiri horiek zuzenean jakinaraziko dizkio agintaritzak eskudunak kontratazio-organoiari.
2. Kasu guztietan, enpresaren urteko batez besteko langile-taldearen BERARIAZKO ARDURAPEKO ADIERAZPEN bat aurkeztuz; bertan, kasua balitz, enpleguan duen egonkortasun maila eta azken urteotako zuzendaritzako langile-taldea adieraziko dira, dagokion justifikazio-dokumentuekin batera.
3. Enpresariaren eta, bereziki, kontratua gauzatzearen ardura duten langileen titulu akademikoak eta profesionalak.
4. Langile guztiek eskaintzan proposatutako bitarteko mekanikoen baliokideekin merkantzien garraioan gutxienez 5 urteko esperientzia dutenaren konpromisoa kreditatu beharko da.
5. Lanak edo prestazioak behar bezala gauzatzeko erabiliko diren makina, material eta ekipo teknikoaren adierazpena; horiei buruz BTAko 3.7. klausulak adierazten duen dokumentazioa aurkeztu behar da.
6. Baldintza Teknikoen Agiriko 3. atalean zehaztutako baldintza teknikoak betetzen direla justifikatzen duen dokumentua.
7. Lizitatuzaileek garraio publikoaren baimen administratiboa dutela kreditatu beharko dute, martxoaren 20ko FOM/734/2007 Aginduak zehazten duen bezala.
8. Lizitatuzaileek, kreditatu egin beharko dute Espainiar Estatutik kanpo egin behar diren garraioetarako **komunitate barneko lizentzia** dutela, Espainian Sustapen Ministerioak igortzen duena.

ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. IRIZPIDEA (Baliozko judizioen arabera neurtuko da)

MEMORIA TEKNIKO: 15 PUNTU ARTE

Baldintza Teknikoen Agiriaren 9. klausulan agertzen den bezala, proposamen teknikoaren balorazioa honela egingo da:

- Giza baliabideen egokitasuna zerbitzuaren premiak asetzeko.
- Aurreikusitako baliabideen egokitasuna zerbitzuaren premiak asetzeko, eskaintzan zehaztutako trakzio-buruak banan-banan aipatuz, baita ordezkioak ere, halakorik balego.
- Zerbitzua bermatzeko eskaintako erdiatoi-kopurua, horietakoren bat ordezkioa den zehaztuz (GHKk jarritako biak ez dira baloratuko)..
- Ustekabeei, matxurei eta antzeko gorabeherari aurre egiteko aurreikuspenen egokitasuna, era horretan, zerbitzuaren premiak asetzeko.

- Lanen kokapena, plangintza eta koordinazioaren koherentzia, betiere proposatutako baliabideak kontuan hartuta, eta horren egokitasuna zerbitzuaren premiak asetzeko, aurreikusitako egutegiarena eta ordutegiarena barne.
- Zerbitzuan eragina dute kanpo baldintzatzaileen inguruko plangintzaren koherentzia (hondakindegia ordutegiak eta araudia, eta abar).
- Akei plantaren artapenerako proposamena, jarduera zehatzak proposatuz. Jarduerak betetzeko epeak zehaztuko dira.

HOBEKUNTZA TEKNIKOAK: 5 PUNTU ARTE

Lizitatuzaileek eskaintzen dituzten Hobekuntzak baloratuko dira, bai garraio zerbitzuari dagozkionak eta baita Transferentzia Plantari dagozkionak ere, kontratuari ekarpen eraginkorrik eragiten diotenak. Horrek ez dio GHKri inolako kosturik ekarriko.

2. IRIZPIDEA (automatikoki baloratuko da)

PROPOSAMEN EKONOMIKOA: 80 PUNTU ARTE

Eskaintza ekonomikoaren balorazioa egiteko, garraiatutako tona bakoitzeko prezioa hartuko da erreferentzia gisa, hain zuzen ere eskaintzan zehaztutakoa.

Onartutako proposamenetako eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, P1 (beherapen maximoa, puntuazio maximoa) eta P2 (0ko beherapena, zero puntuazioa) puntuak definitzen duten lerrozuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barruan, interpolazio lineala egingo da.

Eskaintzetan "prezioa" baloratzeko, soilik garraiatutako tonako prezioa (BEZik gabe) hartuko da kontuan, hain zuzen ere Baldintza Administratibo Berezien Agiriko V. Eranskineko ereduaren arabera proposamen ekonomikoan ageri dena.

Aipatutako puntuak hauek dira:

P1- Eskaintza merkeenari dagokiona (beherapen maximoa), berari emango zaion puntuazioarekin, Pmax puntuazio maximoarekin, alegia.

P2 - Lizitazioaren Oinarrizko Prezioari dagokiona (24 euro tonako), 0 puntu emango zaizkio prezio horri.

Eskaintzaile bakoitzak lortutako puntuazioa (P) kalkulatzeko, ekuazio hau aplikatuko da:

$$P = (P_{\max} \times B) / B_{\max}$$

Non (Bmax = Beherapen maximoa)

Baja (B) gisa ulertzen da Lizitazioaren Oinarrizko Prezioaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, Lizitazioaren Oinarrizko Prezioarekin zatituta.

ASEGURUAK

16. KLAUSULAN AURREIKUSITAKOAK

KONTRATAZIO-MAHAIA

IKUS BALDINTZA-AGIRIAREN 20. KLAUSULA